

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OIONGO UDALA

Hiri eta landa ondasun higiezinaren gaineko zergaren ordainketa aldia jakinarazteko eta kobratzeko iragarkia. 2020ko ekitaldia

Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: 2020ko urriaren 16tik abenduaren 16ra bitartean, bi egun horiek barne, egun baliodunetan, hiri eta landa ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2020ko ordainagiriak ordaindu ahal izango dira borondatezko epean.

B) Betearazte aldia: 2020ko abenduaren 17tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaruak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

Ordaintzeko tokia eta modua.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak: ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

Helbideratutako ordainagiriak, hiri ondasunen ordainagiriak badira, urriaren 16an kobratuko dira, eta urriaren 23an landa ondasunen ordainagiriak badira.

Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa helbideratuta ez duten pertsonen udal bulegoetan eska dezakete ordainketa banku kontuan helbideratzea, diru sarrera egin dezakete Kutxabank finantza erakundearen udalaren duen bilketarako kontuan, edo Udalaren diruzaintzan egin dezakete ordainketa.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldaren barruan dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan eta Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuak, zeinaren bidez onesten baita Arabako Lurralde Historikoko Zergabilketaren Arautegi Orokorra, 119. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Alkatetzan, ordaintzeko borondatezko epean, edo hilabeteko epean, hura amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Iragarkiaren erreferentzia alfanumerikoa: Bo201001A.

Oyón-Oion, 2020ko urriaren 5a

Alkatea

EDUARDO TERROBA CABEZÓN